

BALOREZKO PROPOSAMENA

Bezeroari 24 orduz eraginkorra izango den maskara eskainiko diegu, gainera birziklatzekoan maskaragatik ordaindu duen prezioaren %25 itzuliko diegu, hau da, birziklatzeagatik onurak izango dituzte. Bezeroa, supermerkatu edo farmaziara joan ordez, bezeroak bizi den inguruan makina bat aurkituko du edozein ordutan.



Gure helburua jendea birziklatzera bultzatzeaz gain, haien osasuna modu "merke" eta seguru batean bermatzea da .



Izan ere, horrelako enpresa bat sortzea ezinbestekotzat ikusten dugu gure gizartean, onurak bakarrik ekartzen baititu. Soberan dago esatea, zoritxarrez, jende askok maskara lurrera botatzen duela, eta zakarrontzira botatzen duten pertsonen artean, gutxi batzuk dira birziklatzen dutenak. Horregatik haien osasunagatik eta ingurumena babesteagatik, BIRZIMASK ahaleginduko da krisi egoera horri aurre egitea! Denon artean lortuko dugu!